

LARRAÑE

Nahiara Saralegi, 13 urte

Baiona

Larrañe bakarrik dago:
haurrak urruntzen zaizkio.

Kate batean bezala
bata bestearen gibeletik
beste lurralde batzuetara
iheska joaiten dira
Larrañe utziz bakarrik.

Larrañe triste dago:
malkoak maldan behera
isurtzen zaizkio,
eten gabe,
erreketan.

Larrañe kantuz ari da,
haurrak berriro ere
erakartzeko;
baina xorien kantek,
elizako ezkilen errepikak,
haize firfiraren ufakoek
haren xaramela ezti
estaltzen dute.

Larrañe triste dago:
hango arroken
begirada zorrotzak
larraindarrak
zigortu nahi ditu.

Orain dut ulertzen:
Larrañeko haurrak
lan eskasak ditu haizatzen.
Larrañe larraindarren
bihotza izanki,
berriz itzuliko zaizkio
amodio indartuarekin!